


Paule López Alonso

B maila • 3 aipamena

Nire izena Paule Lopez da eta 15 urte ditut. 2005eko abuztuaren 13an jaio nintzen eta gaur egun arte Beasainen bizi izan naiz nire guraso eta ahizparekin. Txikitatik, Beasaingo LaSalle San Jose ikastetxean ibili naiz eta aurten DBHko laugarren maila egiten ari naiz. Betidanik atsegin izan dut bidaiatzea eta musika entzutea eta horiez gain, asko gustatzen zait marraztea eta lagunenkin denbora igarotzea. Espero dut nire ipuina gustukoa izatea.



AMINA

Hotza, beldurra, bakardadea. Horiek dira orain buruan ditudan hiru hitz bakarrik. Amina dut izena, 13 urte ditut eta orain eskuetan dudak jostailuzko hartza da geratzen zaidan gauza bakarra. Bakarrik nago, bakarrik sentitzen naiz, dena ondo aterako dela esanez besarkatzen nauen inor gabe.

Gomazko almadia txiki batean nago, ia ezagutzen ez dudak jendeaz inguratuta. Ontzi txikiegia da gauden guztiontzat. Edozein unetan irauli daiteke, behar baino pisu handiagoa eramaten baitugu. Urari begira so nago, uhinak begiekin neurtzen. Beldur naiz, itzuliko balitz, jende gutxi salbatuko litzateke. Gehienak ito egingo lirateke oso gutxi dakitelako igeri egiten eta dakitenek ere, izoztuta hilko ziren. Haurdun daudenek eta ume txikiren batek baino ez dituzte jarrita baltsara sartzean eman dizkiguten salbamendu-txaleko apurrak.

Inork ez du hitz egiten, entzuten den gauza bakarra itsasoko olatuak dira eta haur txiki baten negar amorratua. Adin guztietako jendea dago: aiton-amonak, haurtxoak, helduak, haur batzuk, baita nire modukoak ere. Ilun dago eta hotz handia egiten du. Gaur izan arte itxaron dugu, kostazainek ikus gaitzaten aukera gutxiago izateko. Lo egiten saiatzen ari gara dauzkagun manta gutxiekin estalita. Bata bestearen ondoan, elkarri beroa eman nahian. Begiak irmo itxi arren, ezin dut lo egin. Nire familiari buruz pentsatzen ari naiz etengabe, eta faltan somatzen ditudan guztietan ere: lagunak, eskola, nire herria... Baita nire txakurra ere.

Herri txiki batean bizi nintzen, Gazan, nire familiarekin. Aita, gure etxe azpiko okindegi baten jabea zen. Auzo osoa ogia erostera joaten zen eta beti pastel batekin ateratzen ziren okindegitik, okindegira sartzerakoan ogi eta pastel usain atseginarekin bustitzen baitziren. Nire ama erizaina zen. Etxetik urrun samar zegoen ospitale batean egiten zuen lan, baina goizetan bakarrik egiten zuen lan, eta arratsaldean beti izaten zuen denbora guretzat. Beti zegoen prest behar zuenari laguntzeko.

Eta nire senideak...bi ahizpa eta anaia. Guztietan zaharrena, Alme, 17 urtekoa, nirekin eta nire beste ahizpekin batera joaten zena eskolara. Bigarrena, 15 urtekoa, Hana. Animaliak maite zituen eta berari esker lortu genuen Dasel gure bizitzan sartzea. Gero ni, 13 urtetakoa. Arratsaldeak nire lagunik onenarekin ematen nituen, Nadima nire auzokidearekin. Eta gure txikia, Hela da, 8 urtekoa.

Apirilaren 16a. Egun eguzkitsua eta arrunta zen, beste edozein bezalakoa zirudiena, baina inork espero ez zuena gertatu zen. Nadima eta biok ikastetxetik atera eta etxerantz abiatu ginen. Bidean nire anaiarekin topo egin nuen, lagunekin saskibaloian ari zen izerditan blai. Kirola maitatzen zuen eta ahal zuen guztietan lagunekin elkartu eta arratsalde osoa ematen zuten saskibaloiz partidak jolasten. Hori izan zen ikusi nuen azken aldia. 16:30 aldera iritsi nintzen etxera, "arratsalde on" oihukatuz sartu nintzen, arratsaldero bezala. Guztiak zeuden etxean, anaia izan ezik. Aita egongelan, egunkaria irakurtzen. Ama, ahizpa txikiarekin zegoen, eskolako lanetan laguntzen. Motxila utzi albo batean eta musu bana ematera joan nintzen.

Egongelara hurbiltzen ari nintzenean, zarata ikaragarri batek eskuak belarrietara eramatera behartu ninduen. Gurasoei begiratu eta ni bezala zeuden. Gehiegi pentsatu gabe kalera atera ginen, zer gertatzen zen ikusteko. Bizilagun guztiek gauza bera egin zuten. Herri osoan hasi ziren alarmak joka. Jendea negarrez eta oihuka entzun zitekeen laguntza eske. Gurasoak etxean sartu ziren Almeri deitzeko.

Gu kalean geratu ginen itxoiten. Helak eskua eman zidan, izerditan zuen eta bat-batean gertatu zen. Nire etxea erori zen. Bonba batek eraikin osoa suntsitu zuen. Gogor heldu nion Helari. Ezin nuen ezer ikusi ke eta hauts gris haren artean. Lurrera jausi nintzen, eta une batez, ezertan pentsatzen uzten ez zidan txistu handi bat besterik ezin nuen entzun. Bi segundo, bi, erreallitate itzultzeko. Jaiki eta jende guztia noraezean lasterka ikusi nuen. Ni enbortua nengoen zer egin jakin gabe. Alde guztietara begiratu nuen Hela bilatzeko. Ez nuen aurkitzen. Negarrez eta oihuka hasi nintzen, zer egin jakin gabe. Aurrez aurre, nire etxea zena, nire haurtzaro osoa, sutsituta zegoen. Azkar egin nuen korrika eraikinera. Gurasoak etxe barruan zeuden bonba erori zenean, pentsatu nuen. Ahal nuen moduan erorita zeuden horma eta teilatu zatiak kentzen hasi nintzen, gurasoak bizirik aurkitu nahi nituen. Oihu egiten nien negar haunditan, laguntza eskatzen nuen baina inork ez zidan kasurik egiten.

Esku bat sorbaldan somatu nuen. Heldu, eta handik atera ninduen jendea pilatuta zegoen eskolako gimnasia eramanetz. Bakarrik nengoen, ez nuen inor ezagutzen. Ahizpak eta anaia nagusiak galdu nituen. Gimnasio osoan ibili nintzen bila, baina ez nuen zortetik izan. Guztiak ezezagunak ziren eta horietako batzuek zaurituta zeuden. Gaua han igaro nuen janaririk gabe, hotzez izoztuta. Hurrengo goizean, auto batzuetan kostalderaino eraman gintuzten denak. Bidaia oso luzea izan zen. Itsasertzera gauez iritsi ginen, eta orain nagoen baltsan sartu gintuzten. Ez ziguten azalpenik eman, eta zorte izanez gero, egun gutxi barru Espainiara iritsiko ginela esan ziguten.

Iritsiko ote gara inoiz? inora? hemen gaude, itsasoaren erdian, bakarrik jendearen artean. Begiak ixten ditudanetan, gertatutakoa ikusten dut, eta eta nire malko isilek mantso mantso aurpegia zeharkatuz, itsasoko kresalarekin egin dute bat.